

## GOBERNU BATZARRA

2008. 12. 01

Beh. Beh.Alkatea:

Jokin Azkue Arrastoa

Zinegotziak:

Onintza Lasa Arteaga

Yurre Peñagarikano Zubeldia

Idazkaria:

Jose Luis Unanue Ugalde

Tolosako Udaletxean, bi mila zortziko abenduaren batean, Gobernu batzarra bildu da, ohizko bilera egiteko, goizeko 08:00etan hasita. Mahai-burua behin behineko alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai zerrendan agertzen diren puntuak aztertzeko.

1.- Aurreko akta onartzea.

2.- Fatxadak pintatzeagatik dirulaguntza.

3.- 33.zenbakia duen faktura-zerrenda.

### 1.- Aurreko akta onartzea.

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2008ko azaroaren 24an egindako batzarraren akta aztertu eta aho batez onartu da.

### 2.- Fatxadak pintatzeagatik dirulaguntza.

Egindako txosten teknikoa ikusita, Gobernu batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## **ERABAKI DU**

**LEHENA**.- 2008. urtean etxeko fatxadak margotu zituzten jabeei ondorengo diru laguntzak ematea:

Roberto López Arranz  
Villa Arranz  
Telf.: 943654036 - 652747415

318,76 €

**KONTU KORRONTEA: 2101 0152 69 0126233410.**

Jabekideak, Eskolapioetako  
Lorategiak 1, 2, 3.  
Telf.: 943651309 (Marivi Gonzalez) 3.555,00 €  
1.500 m<sup>2</sup> x 2,37 €

**KONTU KORRONTEA: 3035 0028 14 0280061834.**

Jabekideak, San Frantzisko  
pasealekua 5  
Telf.: 943651309 (Marivi Gonzalez) 3.059,67 €  
1.291,00 m<sup>2</sup> x 2,37 €

**KONTU KORRONTEA: 0049 5394 45 2216370185.**

Jabekideak, San Frantzisko  
pasealekua 10  
Telf.: 943651309 (Marivi Gonzalez) 3.412,80 €  
1.440 m<sup>2</sup> x 2,37 €

**KONTU KORRONTEA: 3035 0028 16 0280083335.**

Jabekideak, Oria kalea 8  
Telf.: 606425522 (Eusebio Mendia) 426,60 €  
180 m<sup>2</sup> x 2,37 €

**KONTU KORRONTEA: 2101 0081 11 0001688332.**

Jabekideak, Iparragirre auzoa 3  
Telf.: 626792258 - 943672041(Juan  
Agustin Martin Martin) 5.164,47 €  
2.179,10 m<sup>2</sup> x 2,37 €

**KONTU KORRONTEA: 2101 0152 65 0000929901**

**ETXEA GUZTIRA: 15.937,30 €**

**BIGARRENA**- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari, Obra, Auzo eta Hiri-Mantenimenduko zerbitzuari eta interesatuei.

**3.-33. zenbakia duen faktura-zerrenda.**

Kontuhartzaitzak 33. faktura-zerrenda, 295.606,70 €-koa, aurkeztu du.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## **E R A B A K I D U**

**LEHENA**.- Aipatutako 33. faktura-zerrenda onartzea.

**BIGARREN**.- Onarpenaren berri Kontuhartzaitzari ematea.

**Gai zerrendatik aparte eta daukaten premia kontuan izanik, ondoren aipatzen diren gaiak tratatzen dira:**

**Prefosta taldearen kantaldia**.-

Prefosta taldearen kontzertua abenduaren 13an Zerkausion iluntzeko 19:30erako antolatuta dago, baina kontuan izanik egun horretan BECen Kontseiluaren 10. urteurrenaren ekitaldia dela, ordubete atzeratzea komeni dela adierazi du Euskara eta Hezkuntza Batzordeak. Bestalde, kantaldiak prezio hau du: 4.640 euro.

Aipatutakoa kontuan izanik, Gobernu batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## **E R A B A K I D U**

**LEHENA**.- Onartzea 4.640 euroko aurrekontua, Prefosta taldearen emanaldirako.

**BIGARRENA**.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari, Euskara eta Hezkuntza departamentuari eta Kontseiluari.

**Liburuzainaren eskaera**.-

Euskara eta Hezkuntza batzordeak ontzat jo du udal langileek tolosarrak balira bezala tratatzea. Hori horrela, S.L. M. liburuzainaren eskaera aztertu du eta Maizpide euskaltegian, hilabetez, barnetegian euskarazko eskolak jasotzen izandako matrikulazio gastuaren erdia ordaintzea proposatzen du.

Aipatutakoa kontuan izanik, eta Euskara eta Hezkuntza batzordeak jaulkitako diktamenarekin bat etorritz, Gobernu batzar honek aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## **E R A B A K I D U**

**LEHENA**.- Matrikulazio gastuaren erdia ordaintzea, hau da, prezioa 258 eurokoa izanik, 129 euro ordaintzea.

**BIGARRENA**.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari, Euskara eta Hezkuntza departamentuari eta S.L.M. liburuzainari.

**Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jotzen da, 10:00etan.**

**ALKATEA**

**IDAZKARIA**